

EUSKARA

2017ko azaroa

GIPUZKOAKO NERABE EUSKALDUNAK: IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOA ETA SORKUNTZA

EDUKIAK KOMUNIKATZEA, PARTEKATZEA ETA IRUZKINTZEA

Ainhoa Fernández de Arroyabe Olaortua _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakaslea.

Iñaki Lazkano Arrillaga _ EHUko Kazetaritza II Saileko irakaslea.

Leyre Eguskiza Sesumaga _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko ikertaria.

Iñigo Larrauri Garate _ EHUko Artearen Historia eta Musika Saileko irakaslea.

Santos Zunzunegui Díez _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakaslea.

Imanol Zumalde Arregi _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakaslea.

EGILE GUZTIAK IGM/MAC IKERKETA TALDEKO KIDE DIRA



mac

Ikus-entzunezko Garaikideen Mutazioak
Mutaciones del Audiovisual Contemporáneo



ETORKIZUNA ERAIKIZ
EL **FUTURO** DE GIPUZKOA



Aurkibide orokorra

4. EDUKIAK KOMUNIKATZEA, PARTEKATZEA ETA IRUZKINTZEA (60-69)

132

Grafikoen aurkibidea

93. grafikoa. Pelikulak, telesailak edo saiok aukeratzeko irizpideak	133
94. grafikoa. Pelikulak, telesailak eta telebista saiok aukeratzeko irizpideak generoaren arabera	134
95. grafikoa. Musika eta bideoklipak aukeratzeko irizpideak	135
96. grafikoa. Musika eta bideoklipak aukeratzeko erabilitako irrati/telebista kanalak edota plataformak	136
97. grafikoa. Bideojokoak aukeratzeko irizpideak.....	137
98. grafikoa. Bideojokoak aukeratzeko irizpideak generoaren arabera	138
99. grafikoa. Gazteen hizketagaiak lagunartean.....	139
100. grafikoa. Gazteen hizketagaiak lagunartean adinaren arabera	140
101. grafikoa. Hizketagaiak lagunartean generoaren arabera.....	141
102. grafikoa. Gazteek edukiak lagunartean komentatzeko erabilitako bitartekoak.....	142
103. grafikoa. Edukiak lagunartean komentatzeko bitartekoak generoaren arabera	143
104. grafikoa. Edukiak lagunartean komentatzeko bitartekoak euskararen erabilera informalaen arabera.....	144
105. grafikoa. Edukiak lagunartean komentatzeko bitartekoak euskararen erabilera teknologikoaren arabera	144
106. grafikoa. Edukiak jarraitu edota gomendioak egiteko erabilitako hizkuntza(k).....	145
107. grafikoa. Edukiak jarraitu edota gomendioak egiteko hizkuntza(k) euskararen erabilera informalaen arabera..	147
108. grafikoa. Edukiak jarraitu edota gomendioak egiteko hizkuntza(k) ikasketetan egiten den euskararen erabileraen arabera.....	147
109. grafikoa. Edukiak jarraitu edota gomendioak egiteko hizkuntza(k) euskararen erabilera teknologikoaren arabera	148
110. grafikoa. Gazteek lagunekin komentatutako pelikulak.....	148
111. grafikoa. Lagunekin komentatutako pelikulak adinaren arabera.....	150
112. grafikoa. Lagunekin komentatutako pelikulak generoaren arabera	151
113. grafikoa. Lagunekin komentatutako telesailak	151
114. grafikoa. Lagunekin komentatutako telesailak generoaren arabera	153
115. grafikoa. Lagunekin komentatutako saiok.....	154
116. grafikoa. Lagunekin komentatutako saiok generoaren arabera	156

Taulen aurkibidea

57. taula. Ikus-entzunezko edukiak kontsumitzeko tokirik gustukoena	132
58. taula. Pelikulak, telesailak edo saiok aukeratzeko irizpideak eskualdeka.....	134
59. taula. Musika eta bideoklipak aukeratzeko irizpideak eskualdeka	135
60. taula. Musika eta bideoklipak aukeratzeko irrati/telebista kanalak edota plataformak eskualdeka	136



61. taula. Bideojokoak aukeratzeko irizpideak eskualdeka.....	137
62. taula. Lagunarteko hizketagaiak eskualdeka.....	139
63. taula. Edukiak lagunartean komentatzeko bitartekoak eskualdeka.....	142
64. taula. Edukiak jarraitu edota gomendioak egiteko erabilitako hizkuntza(k) eskualdeka	146
65. taula. Gazteek lagunekin komentatutako pelikulak eskualdeka.....	149
66. taula. Lagunekin komentatutako telesailak eskualdeka	152
67. taula. Lagunekin komentatutako saioak eskualdeka	155

4. EDUKIAK KOMUNIKATZEA, PARTEKATZEA ETA IRUZKINTZEA

(60) Non ikusten dituzu gehiago eduki hauek?

Gazteek etxean ikusten dituzte gehienbat ikus-entzunezko edukiak. Pelikulek, telebista saioek, telesailak eta kirol emankizunek antzeko emaitzak eskuratzen dituzte; izan ere, gehienbat familiako beste kide batzuekin elkartuta eta etxean bakarrik daudenean kontsumitzen dituzte. Musika bideo klipen eta pornoaren kasuan, etxean bakarrik daudenean ikusten dituzte nerabeek. Bideojokoei dagokienez, azkenik, aukera ezberdinak aipatzen dituzte: gehienbat bakarrik daudenean jolasten dute nerabeek, baina baita familiarrean eta lonjan daudenean ere.

57. taula. Ikus-entzunezko edukiak kontsumitzeko tokirik gustukoena

	Etxean bakarrik	Etxean familiarekin	Lonjan edo lokalean lagunarean	Tabernan	Ez dakit
Bat ere ez	1,9	1,8	2,6	3,4	93
Pelikulak	32,6	65,1	13,3	0,6	9,6
Telesailak	36,1	43,6	4,3	0,7	27,9
Telebista saioak	26,7	45,2	3,6	0,8	34,1
Bideojokoak	44,1	12,6	11,7	0,7	39,1
Bideoklipak	57,2	8,4	7,4	1,3	33,6
Kirolak	21,8	43,4	7,5	9,6	34,1
Pornoa	13,8	1,2	2,3	1	83,3

Iturria: Egileak berak eginga.

Nerabeen adinari eta generoari erreparatuta, desberdintasun nabariak antzeman dira eduki hauek ikusteko aukeratzen dituzten lekuei dagokienez. Adinaren kasuan, **gazteenek gutxiago ikusten dituzte ikus-entzunezkoak bai etxean bakarrik eta baita lonjan ere.** Etxean bakarrik daudenean gutxiago kontsumitzen dituztenak dira bideoklipak (%44,7), telesailak (%29,6), pelikulak (%21,3), eta pornoa (%2); lonjan, berriz, pelikulak (%7,9), bideoklipak (%5,2), kirol emankizunak (%5,1), eta pornoa (%0,8). Adin honetako gazteak dira, gainera, bideojokoen eta bideo klipen kasuan etxean familiarekin daudenean kontsumorik altuenak egiten dituztenak (%15,4 bideojokoak eta %11,6 bideoklipak).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako ikasleek ere gutxiago ikusten dituzte telebista saioak lonjan (%1,8) eta pornoa bakarrik (%10). Hirugarren mailako gazteen artean, bere aldetik, gehiago dira bideoklipak (%64,3) eta pornoa (%21,6) etxean bakarrik ikusten dituztenak.

Alderik nabarmenenak nagusienek (DBH 4) artean identifikatu dira. **Adin-tarte honetako gazteek nahiago dute ikus-entzunezko edukiak etxean bakarrik eta lonjan lagunarean jarraitzea.** Ondorioz, **familiarreko kontsumora hein txikiago batean jotzen dute.** Ikasturte honetako hamar gaztetik lauk kontsumitzen dituzte pelikulak eta telesailak etxean bakarrik, seik bideoklipak eta bik pornoa. Lonjara ez dira gehiegi gerturatu ikus-entzunezko eduki hauek jarraitu nahi dituztenean


baina, hala ere, hamasei urte ingurukoak dira lagunartean kontsumo mailarik altuena dutenak: pelikulak %19, kirolak %11,5, telesailak %7,4, telebista saioak %7,4 eta pornoa %3,7.

Esan bezala, gazteen generoak ere ezberdintasunak markatzen ditu aztergai den alorrean. Neskek pelikulak gehiago ikusten dituzte lonjan (%17,9); telesailak etxean familiarekin (%47,9) eta bakarrik (%41,5); telebista saioak etxean familiarekin daudenean (%49,6); eta bideo klipak etxean bakarrik (%63,2) zein lonjan (%9,2). Mutilak, berriz, gehiago jolasten dira bideojokoekin etxean bakarrik (%66,3) eta lonjan (%15); gehiago ikusten dituzte kirolak etxean bakarrik (%31,7), tabernan (%11,7) eta lonjan (%11,1); eta porno kontsumo altuago dute etxean bakarrik (%25,4) eta lonjan (%3,5).

(61) Nola aukeratzen dituzu ikusten dituzun pelikulak, telesailak edo saioak?

Norberaren gustu pertsonala da pelikulak, telesailak edo telebista saioak aukeratzekoan gazteek kontuan hartzen duten irizpide nagusia, bi herenek baino gehiagok (%66,4) egiten baitute honen alde. Urrun kokatzen dira lagun eta ezagunen gomendioak (%29,3), Youtuben edo bestelako telebista kateen webguneetan eskegitako informazioa (%15,8) eta sare sozialetan zein WhatsApp taldeetan irakurritakoa (%10,9). Aipagarria da gazteen %2,6k soilik erabiltzen dituztela ohiko komunikabideak informazio-iturri gisa.

93. grafikoa. Pelikulak, telesailak edo saioak aukeratzeko irizpideak



Iturria: Egileak berak egina.

Emaitza orokorretan islatzen den joerarekin bat datoz Gipuzkoako eskualdeak. Azpimarra daitekeen ezberdintasun bakarra Debabarrenean identifikatu da, bertako gazteek nabarmen gehiago jarraitzen baitituzte lagunek luzatutako gomendioak (%38).


58. taula. Pelikulak, telesailak edo saiok aukeratzeko irizpideak eskualdeka

	Guztira	Tolosaldea	Goierri	Donostialdea	Debagolena	Oarso- Behe Bidasoa	Urola Kosta	Debabarrena
Nire gustuen arabera	66,4	69,2	68,1	65,2	69,3	67,2	62,4	65,4
Lagun eta ezagunen gomendioak	29,3	30	27,1	28,6	31,4	26,2	27,5	38
Youtube edo telebista webguneetako informazioa	15,8	13,8	14	15,8	16,7	16,5	15,7	17,9
Sare sozialak edota WhatsApp taldeak	10,9	9,1	7	11,2	11	12,3	10,6	13,7
Prensa, irrati edo telebistaren gomendioak	2,6	2,8	3,1	2,7	1,5	2,6	2,4	3
Ed/Ee	3,8	4	2,6	4,4	4,2	3,8	3,5	2,6

Iturria: Egileak berak egina.

Gazteen adina, generoa eta ikasketetan zein egunerokoan egiten den euskararen erabilera bezalako aldagaietan ere ezberdintasunak topatu direla azpimarratu beharra dago. Ikus-entzunezko edukiak hautatzeko orduan, **gazteenak (DBH1) dira lagun eta ezagunen iritzia gehien (%22,1) kontuan hartzen dutenak**. Generoari dagokionez, **neskak dira joera honekin bat datozenak gehien**. Izan ere, heren batek baino gehiagok (%34,2) lagunei galdetzea nahiago baitute eta mutilen artean, berriz, bakarrik laurden batek (%24,1). Horren harira, **mutilek kasu gutxiago (%9) egiten diote sare sozialetan eta WhatsApp-en ageri den informazioari**.

94. grafikoa. Pelikulak, telesailak eta telebista saiok aukeratzeko irizpideak generoaren arabera




Iturria: Egileak berak egina.

Azkenik, inguru erdaldunago batean bizi direnek eta ikasketetan euskara ez darabiltenek Youtube plataformara eta telebista kateetako webguneetara maizago jotzen dute pelikulei, telesailei eta telebista saioei buruzko gomendio bila (%18,5 eta %21,3 kasu bakoitzean).

(62) Nola aukeratzen dituzu entzuten duzun musika -abestiak- eta ikusten dituzun bideoklipak?

Galdera honetan ere aurrekoan lortutako emaitza berdinak errepikatzen dira, hau da, **hamar gaztetatik zazpik (%69,4) haien gustuen arabera aukeratzen dute entzuten duten musika eta ikusten dituzten bideoklipak**. Bestelako aukerak urrun geratzen dira harekin konparatuta, alegia, lagun eta ezagunen gomendioak kontutan hartzea (%26,8), Youtube eta telebista kateen webguneak jarraitzea (%15), sare sozialetara eta WhatsApp taldeetara jotzea (%9,7) eta ohiko komunikabidetan argitaratzen dena irizpide gisa hartzea (%3,7).

95. grafikoa. Musika eta bideoklipak aukeratzeko irizpideak



Iturria: Egileak berak egina.

Kasu honetan, Gipuzkoako eskualde guztietan batezbesteko emaitzek markatzen dituzten joerak jarraitzen direla esan beharra dago. Beste hitz batzuetan, ez da aurkitu aipagarria den ezberdintasun nabarmenik toki batetik bestera. Orokorrean aipa genezake ehunekorik altuenak honako eskualdeetan lortu direla: Tolosaldean haien gustuen araberako aukeraketa, eta Debabarrenean, gainerako kategoriak guztiak (lagun eta ezagunen gomendioak jarraitu, Youtube edo telebista webguneetako informazioa irakurri, sare sozialak edota WhatsApp taldeetan irakurritakoa kontuan hartu eta komunikabideen irizpideak segitu).

59. taula. Musika eta bideoklipak aukeratzeko irizpideak eskualdeka


	Guztira	Tolosaldea	Golferri	Donostialdea	Debagoiena	Oarso-Behe Bidasoa	Urola Kosta	Debabarrena
Nire gustuen arabera	69,4	74,3	69,9	67,1	70,5	72,2	68,6	65,8
Lagun eta ezagunen gomendioak	26,8	24,1	27,5	27,5	30,7	23,1	23,5	32,9
Youtube edo telebista webguneetako informazioa	15	14,2	13,5	14,6	14	16,7	13,7	17,5
Sare sozialak edota WhatsApp taldeak	9,7	6,3	7	10,4	9,8	9,9	9,4	13,7
Prensa, irrati edo telebistaren gomendioak	3,7	2,4	3,5	4,3	2,7	3,3	4,3	4,7
Ed/Ee	4	4,3	2,6	4,4	4,5	3,3	4,3	3,4

Iturria: Egileak berak egina.

Pelikulekin, telesailekin eta telebista saioekin gertatzen zen bezalaxe, Youtube bezalako plataformetara eta telebista kateen webguneetara gehiago jotzen dutenak dira euskara hobetzeko errefortzua behar dutenak (%20,6), inguru erdaldunago batean bizi direnak (%17,9) eta ikasketetan euskara ez darabiltenak (%20,6).

Ondorengo lerroen azpian, nerabeek musika edo bideoklipak aukeratzeko erabiltzen dituzten plataforma edo komunikabideen zerrenda ageri da. Los 40 principales da alor honetan maneiatzen duten iturri nagusia (%5,6), Gaztea (%2,2) eta Cadena 100 (%1,1) atzean dituela. Interneteko Spotify plataformak eskaintzen dituen gomendio eta iradokizunak ere baliabiderik erabilienetakoak dira (%2,2), RT, Press TV eta GlobalFaction online telebista kateekin batera (%1,1).

96. grafikoa. Musika eta bideoklipak aukeratzeko erabilitako irratitelebista kanalak edota plataformak



Iturria: Egileak berak egina.

Gipuzkoako bi eskualdetan topatu dira ezberdintasun nabariak hedabide eta plataforma hauei dagokienez. Hain zuzen ere, Goierri nabarmen gehiago kontsultatzen dira RT, Press TV eta GlobalFaction (%12,5) eta Oarso-Behe Bidasoan beste inon baino gehiago jarraitzen dituzte Cadena 100 irratia ren gomendioak (%7,1). Beste alde batetik, Los 40 principales irratia ren kontsumoari buruzko datuak Donostialdean eta Debabarrenean soilik lortu izan dira; Gaztea-ri buruzkoak, berriz, Oarso-Behe Bidasoan eta Urola Kostan. Spotify Goierri erabiltzen dute gehienbat, Donostialdearekin batera.

60. taula. Musika eta bideoklipak aukeratzeko irratitelebista kanalak edota plataformak eskualdeka

	Guztira	Tolosaldea	Goierri	Donostialdea	Debagoiena	Oarso-Behe Bidasoa	Urola Kosta	Debabarrena
Los 40 principales	5,6			12,1				9,1
Spotify	2,2		12,5	3				
Gaztea	2,2					7,1	9,1	
Cadena 100	1,1					7,1		
RT, Press TV eta Globalfaction	1,1		12,5					
Ed/Ee	88,9	100	75	87,9	100	85,7	90,9	90,9


Iturria: Egileak berak egina.

Bestelako aldagai batzuei erreparatuta, deigarria da estatus ertain-altuko gazteen eta *Spotify* plataformaren arteko lotura. Maila honetakoak dira bertan eskaintzen diren gomendioak gehien jarraitzen dituztenak, seguruenik euren artean *Spotify*-ren kontsumo-maila ere altua delako.

(63) Nola aukeratzen dituzu bideojokoak?

Beste behin ere, **gazteek euren gustu pertsonalak jarraitzen dituzte bideojokoak aukeratzeko orduan**. Inkestan parte hartu dutenen erdiek baino gehiagok (%58,8) egin dute aukera honen alde eta gainerako kideek nahiago dute bestelako iturri batzuetara jotzea laguntza bila. Talde honen barruan, nerabeen laurdenek baino gutxiagok (%22,7) diote haien lagun eta ezagunei galdetzen dietela, Youtubeen eta telebista kateetan eskaintako informazioaren (%12), sare sozialetan eta WhatsApp taldeetan esandakoaren (%5,4) eta prentsa, irrati edo telebistan emandako aholkuen (%1,5) aurretik.

97. grafikoa. Bideojokoak aukeratzeko irizpideak



Iturria: Egileak berak egina.

Atal orokorrean lortutako emaitzak (batezbestekoak) bat datoz eskualdekoekin, beraz, haien artean ezberdintasun nabarmenik ez dagoela adieraz daiteke. Ehuneko altuenak lortzen dituzten eskualdeei erreparatuta, Oarso-Behe Bidasoa da nagusi haien gustuen arabera aukeratzeko kategorian (%65,1), Donostialdea lagun eta ezagunen gomendioak jarraitzean (%25,3), Debabarrena Youtube edo telebista webguneetako informazioa kontuan hartzeko orduan (%14,5), Donostialdea sare sozialetan edo WhatsApp taldeetan dagoen informazioaren kontsumoan (%6,8) eta Tolosaldea komunikabideetan ageri diren irizpideei kasu egitean (%2).


61. taula. Bideojokoak aukeratzeko irizpideak eskualdeka

	Guztira	Tolosaldea	Goiherri	Donostialdea	Debagoiena	Oarso-Behe Bidasoa	Urola Kosta	Debabarrena
Nire gustuen arabera	58,8	62,1	59,8	56,7	55,7	65,1	55,7	56,8
Lagun eta ezagunen gomendioak	22,7	19	27,1	25,3	17	21	19,6	26,5
Youtube edo telebista webguneetako informazioa	12	12,6	10,5	13,8	9,8	11,6	7,8	14,5
Sare sozialak edota WhatsApp taldeak	5,4	6,3	2,6	6,8	3,4	6,4	3,1	5,1
Prentsa, irrati edo telebistaren gomendioak	1,5	2	1,7	1,7	1,5	1,2	0,4	1,7
Ed/Ee	20,7	21,3	19,7	19,7	25,8	18,4	24,7	18,4

Iturria: Egileak berak egina.

Gazteen generoa da bideojokoak aukeratzeko garaian ezberdintasun gehien eragiten dituen aldagaia. **Mutilen ehunekoak altuagoak dira kategoria guztietan**; beraz, aholku bila plataforma hauetara jotzen dutenen artean neskak baino gehiago dira, haien artean ere kontsumoa handiagoa delako. Zehazki, mutilen %67,8 eta nesken %50,2 dira euren gustuen arabera aukeratzeko dutenak, %27,5 eta %18 lagun eta ezagunen gomendioak jarraitzen dituztenak, %18,7 eta %5,5 Youtube eta telebista kateen webguneetara doazenak, %7,5 eta %3,3 sare sozialetan eta WhatsApp taldeetan ematen diren gomendioak jarraitzen dituztenak, eta %2,5 eta %0,5 ohiko hedabideak irizpide gisa erabiltzen dituztenak.

98. grafikoa. Bideojokoak aukeratzeko irizpideak generoaren arabera



Iturria: Egileak berak egina.


Adinak ere markatzen du bideojokoaren aukeraketa egiterakoan jarraitzen den irizpidea. Izan ere, nagusienen (DBH 4) artean beste ikasturteetan baino gutxiago dira euren gustuen arabera hautatzen dutenak (%51,3) eta, era berean, gutxiago hartzen dituzte kontuan sare sozialetan eta WhatsApp-en irakurtzen dutena (%3,7).

Gazteen estatusari erreparatuta, maila baxuan kokatzen direnek gehiago jotzen dute Youtubera (%15,6) eta sare sozial zein WhatsApp-era (%7,9). Maila ertain-altuan daudenean, ordea, justu kontrako joera erakusten dute: nabarmen gutxiago jarraitzen dituzte sare sozialetako eta WhatsApp-eko gomendioak (%2,4).

(64) Zer-nolako edukiak izaten dituzu hizketagai zure lagunekin?

Pelikulak dira lagunartean daudenean gazteek ezartzen duten hizketagairik ohikoena, hamarretik zortzi (%81,8) mintzatzen baitira haiei buruz. Bigarren eta hirugarren postuak telesailei (%65,4) eta musikari (%63,5) dagozkie, hurrenez hurren. *Reality*-ak (%47,7), kirola (%46,2) eta bideojokoak (%43,4) dira neurri txikiago batean ageri diren bestelako aukerak.

99. grafikoa. Gazteen hizketagaiak lagunartean



Iturria: Egileak berak egina.

Gipuzkoako hiru eskualdetan aurkitu dira diferentzia nabarmenak gazteen hizketagaiari buruz galdetuta. Goierri eta Debagoienean beste inon baino gutxiago aritzen dira bideojokoaren gainean (%35,4 eta %34,5 kasu bakoitzean); Debabarrenean, aldiz, inon baino gehiago hitz egiten dute gazteek *reality*-en inguruan (%61,5). Azken ideia honi lotuta, gogoratu beharra dago eskualde honetan lortzen dituztela *reality* eta txutxu-mutxu saioek kontsumo daturik altuenak.


62. taula. Lagunarteko hizketagaiak eskualdeka

	Guztira	Tolosaldea	Goierri	Donostialdea	Debagoiena	Oarso- Behe Bidasoa	Urola Kosta	Debabarrena
Pelikulak	81,8	79,1	83,8	84,4	77,3	81,1	76,1	86,8
Telesailak	65,4	67,6	65,5	67,5	66,3	57,8	63,5	70,5
Musika	63,5	61,7	70,7	58,3	64	66,3	65,1	68,4
Reality-ak	47,7	42,7	40,6	46,5	51,1	46,9	47,8	61,5
Kirolak	46,2	45,1	47,2	43,5	51,5	43,9	52,2	47,4
Bideojokoak	43,4	46,2	35,4	48,1	34,5	45	43,5	39,3
Ed/Ee	3,1	2	2,2	3	3,4	3,8	3,9	3

Iturria: Egileak berak egina.

Gazteen adina kontuan izanda, orokorrean esan daiteke **zenbat eta nagusiagoak izan orduan eta gehiago hitz egiten dutela *reality*-ei buruz eta gutxiago bideojokoaren inguruan**. Ikasturtez ikasturte, DBHko 1. mailan nabarmen gutxiago izaten dituzte hizketagai lagunartean telesailak (%57,8), musika (%51,6) eta *reality*-ak (%39,4). Bigarren mailan joera berdina mantendu egiten da *reality* programei dagokienez, gazte hauek baitira eduki horiei buruz gutxien (%41,4) hitz egiten dutenak. Bideojokoaren inguruan, berriz, nabarmen gehiago (%48,8) aritzen dira. Azkenik, nagusienak (DBH 4) dira *reality*-en (%55,5) inguruan gehien mintzo direnak eta bideojokoak (%36,4) hizketagai gisa gutxien dituztenak.


100. grafikoa. Gazteen hizketagaiak lagunartean adinaren arabera



Iturria: Egileak berak egina.

Gazteen generoa ere bada ezberdintasun nabariak markatzen dituen aldagaietako bat. Izan ere, **neskek gehiago hitz egiten dute pelikulei** (%87,5), **telesailari** (%73,3), **musikari** (%78,5) **eta reality-ari** (%63,1) **buruz. Mutilak, aldiz, gehiago mintzatzen dira bideojokoaren** (%73,5) **eta kirolen** (%65,3) **inguruan.**

101. grafikoa. Hizketagaiak lagunartean generoaren arabera



Iturria: Egileak berak egina.

Beste alde batetik, ezberdintasunak antzeman dira euskararen erabilera kontuan izanda. Inguru erdaldunago batean bizi direnek gutxiago hitz egiten dute *reality*-ei (%42,8) eta kirolei (%37,1) buruz. Eguneroko bizitzan euskaraz mintzo direnek, berriz, nabarmen gehiago (%51,3) dituzte hizpide kirolak lagunartean.

Antzekoa da egoera ikasketetan egiten den euskararen erabilari erreparatuta; izan ere, *reality*-ei buruz gutxiago (%36) eta bideojokoei buruz gehiago (%51,8) mintzatzen dira hizkuntza hori ez darabiltenak. Azkenik, alor teknologikoan euskarara jotzen ez duten gazteen artean, neurri txikiagoan dira hizketagai telesailak (%60,2) eta kirolak (%39,6).

Bidez batez, bestelako aldagai bat ere nabarmentzeko beharra sumatu da: gurasoek nerabeen gainean ezartzen duten kontrola. Alor sozialean kontrol altua dutenek gehiago hitz egiten baitute *reality*-en inguruan (%51,6).


(65) Edukiak lagunartean komentatzeko zer bitarteko erabiltzen dituzu?

WhatsApp behin-behineko mezu zerbitzua **da gazteek ikusten dituzten edukiak lagunartean komentatzeko plataformarik gustukoena**. Erabiltzaileen %63,4k ikus-entzunezko programa edo saio horiei buruzko hizketaldi pribatuak mantentzen dituzte beste pertsona batekin eta %54,7k WhatsApp-eko talde tematikoetan modu aktiboan hartzen dute parte.

Era berean, **Instagram da adin tarte honetako nerabeen sare sozialik erabiliena**, partehartzaileen %44,2k bertan partekatzen baitituzte telesailei, pelikulei edota musikari buruzko iruzkinak. **Twitter eta Facebook**, berriz, **askoz gutxiago erabiltzen dituzte gazteek**, bestelako sare sozialekin alderatuta (%6 kasu bietan).

Aurrez aurreko iritzien elkartrukearen alde ere nabarmen egiten dute nerabeek, hamarretik ia bostek (%47,2) gai hauei buruz hitz egiten baitute lagunekin elkartzen direnean. Ikus-entzunezko edukiak lagun eta ezagunekin inoiz komentatzen ez dituztenak, beren aldetik, ez dira %6-ra ere iristen.

102. grafikoa. Gazteek edukiak lagunartean komentatzeko erabilitako bitartekoak



Iturria: Egileak berak egina.

Gipuzkoako eskualdeetako egoera oso antzekoa da emaitza orokorrekin alderatuz. Antzemandako ezberdintasun bakarrak Goierri eta Oarso-Behe Bidasoan izan dira. Lehenengoan beste tokietan baino jarrera nabarmenagoa dago edukiak lagunartean ez komentatzeko (%8,7). Bigarrenean, Twitter erabiltzeko joera handiagoa dute (%9,4) eta gutxiago komentatzen dituzte edukiak aurrez aurre (%39,9). Debabarrenean lortzen du WhatsApp aplikazioak emaitzarik onena, gazteen %72,6-k erabiltzen baitu komentarioak igortzeko.

63. taula. Edukiak lagunartean komentatzeko bitartekoak eskualdeka


	Guztira	Tolosaldea	Goierri	Donostialdea	Debagoiena	Oarso-Behe Bidasoa	Urola Kosta	Debabarrena
WhatsApp, beste pertsona batekin	63,4	57,7	61,6	61,7	64	65,6	62,7	72,6
WhatsApp-eko talde tematikoa	54,7	52,2	47,2	56,8	56,4	54	53,3	58,5
Aurrez aurre	47,2	54,5	47,2	44,7	51,1	39,9	52,5	50,9
Instagram	44,2	41,9	47,2	46,4	37,5	46	36,5	49,1
Twitter	6,1	6,3	3,1	6,4	6,1	9,4	4,3	3,4
Facebook	6	6,7	4,8	5,3	8,3	7,5	3,5	5,6
Ez dut komentatzeko ohiturarik	5,4	5,5	8,7	4,3	6,8	6,6	4,7	3
Ed/Ee	4,2	4	3,1	5,1	4,5	4,5	3,5	2,6

Iturria: Egileak berak egina.

Gazteen adina, generoa, estatusa, euskararen erabilera eta gailu elektronikoak kontuan hartuta, ezberdintasunak aurkitu dira. Hasteko, adinari erreparatuko diogu, gazteenak baitira ikus-entzunezko edukiak aurrez aurre gutxien komentatzen dituztenak (%36) eta nagusienak (DBH 4), ordea, gehien (%56,5).

Nerabeen generoa kontuan izanda, ikus-entzunezko edukiak komentatzerako orduan, mutilek **sare sozialen erabilera handiagoa egiten dute** neskekin alderatuz. Konkreteki, gazteen %8 dira Twitter erabiltzen dutenak iritziak elkartrukatzeko eta %7,4 Facebook. Nesken artean, ordea, joera nabarmenagoa dute eduki horietan lagunartean aurrez aurre komentatzeko (%54,6).

103. grafikoa. Edukiak lagunartean komentatzeko bitartekoak generoaren arabera




Iturria: Egileak berak egina.

Estatus sozioekonomikoarekin jarraituz, maila baxuan kokatutako gazteak dira edukiak aurrez aurre gutxien komentatzen dituztenak (%38,4) eta maila altukoak ekintza hori gehien burutzen dutenak (%63,8). Era berean, edukiak Facebook-en komentatzen dituzten nerabeen artean estatus baxukoek nabarmen gehiago erabiltzen dute (%9,3), estatus ertain-altuko (%2,4) eta altuko (%1,1) erabiltzaileen aurretik. Bestetik, estatus ertaineko gazteak dira Twitter sare sozialarekiko joera handiena dutenak (%8,3).

Euskararen erabilerrari dagokionez, aurkitu diren diferentzia nabariak zenbait sare soziali (Twitter, Facebook eta Instagram) eta aurrez aurreko hizketaldiari dagozkie. **Orokorrean esan daiteke gaztelaniara jotzen duten gazteek sare sozialak (batez ere Instagram) gehiago erabiltzen dituztela ikus-entzunezko edukiak komentatzeko. Euskara familian eta lagunartean erabiltzen dutenek, ordea, nahiago dute iritziak aurrez aurre elkarbanatzea.** Emaitzak kategoriaz kategoriaz aztertuko ditugu jarraian. Hasteko, euskara trebakuntza hobetzeko beharra duten nerabeen artean gehiago komentatzen dute Instagram (%58,2) edo Facebook (%10,1) bezalako sare sozialen bidez eta gutxiago aurrez aurre (%29,1).

Inguru erdaldunagoetan bizi diren gazteek joera berdina erakusten dute, hau da, gutxiago komentatzen dituzte edukiak aurrez aurre (%35,5) eta sare sozialetara gehiago jotzen dute. Izan ere, haien %50,8 dira Instagram erabiltzen dutenak, %9,5 Facebook nahiago dutenak eta %8,3 Twitter. Eguneroko bizitzan euskaraz mintzatzen direnen artean, ordea, kontrako emaitzak lortu dira: nabarmen gutxiago erabiltzen dituzte Instagram (%40,4), Twitter (%4,8) eta Facebook (%4), eta gehiago hitz egiten dute aurrez aurre (%53,8).

104. grafikoa. Edukiak lagunartean komentatzeko bitartekoak euskararen erabilera informalaren arabera




Iturria: Egileak berak egina.

Hezkuntzaren eremuan euskara gutxiago erabiltzen dutenek, beste behin ere, aurreko kategorietan islatutako joera berdina erakusten dute. Beste hitz batzuetan esanda, arlo akademikoan hizkuntza hori ez darabiltenek gutxiago dute gustuko aurrez aurre edukiak komentatzea (%31,6) eta zeregin horretarako gehiago jotzen dute sare sozialetara. Zehazki, Instagram gazteen erdiek baino gehiagok erabiltzen dute (%54,4), atzean Facebook (%14) eta Twitter (%9,9) kokatuz.

Teknologiaren eremuan ere frogatu da euskarara jotzen dutenek sare sozialak gutxiago erabiltzeko ohitura dutela iritziak partekatzeko garaian (%4,3-k baino ez dituzte bai Twitter eta bai Facebook erabiltzen). Lagunartean daudenean, berriz, nabarmen gehiago (%53,4) komentatzen dituzte gustuko pelikulak, telesailak edo saiokak.

105. grafikoa. Edukiak lagunartean komentatzeko bitartekoak euskararen erabilera teknologikoaren arabera




Iturria: Egileak berak egina.

Azkenik, gailu elektronikoen erabileran ere logikoak diren diferentzia nabariak topatu izan dira. Hain zuzen ere, nabarmen gehiago erabiltzen dute Facebook ordenagailu eramangarria (%10,8), telefono mugikorra (%15,2) eta tableta (%8,8) dutenek. Aurrez aurre iritziak partekatzea, berriz, gutxiago burutzen duten jarduera litzateke (%37,1 ordenagailu eramangarria duten gazteak eta %27,2 telefono mugikorraren erabiltzaileak).

(66) Zein hizkuntza erabiltzen duzu edukien jarraipena egin edo gomendioak egiteko?

Gaztelania da gazteek ikus-entzunezko edukiak komentatu edo haiei buruzko iradokizunak luzatzeko erabiltzen duten hizkuntza nagusia, heren batek baino gehiagok (%38,8) haren alde egiten baitute. **Euskara**, ordea, **hamarretik batek soilik** (%11,3) **baliatzen du**. Iritziak partekatzeko eredu elebiduna (euskara eta gaztelania) erabiltzen dutenen artean, gehiago dira gaztelania hobesten dutenak (%28,5) euskara lehenesten dutenekin (%20,1) alderatuta. **Bi kategoriak elkartuz** gero, ordea, **eredu elebiduna gaztelaniaren aurretik kokatuko litzateke nerabeen lehenengo aukera gisa edukien jarraipena egiteko** (%48,6).

106. grafikoa. Edukiak jarraitu edota gomendioak egiteko erabilitako hizkuntza(k)



Iturria: Egileak berak egina.

Gipuzkoako eskualdeen araberako analisia eginez, bestelako galdera batzuetan identifikatutako bi joera nagusiak ageri dira kasu honetan ere. Alde batetik, **euskararekiko atxikimendu handiagoa duten guneak (Tolosaldea, Debagoiena eta Urola Kosta)** eta, bestetik, neurri **handiangoan gaztelaniaren alde egiten dutenak (Donostialdea eta Oarso-Behe Bidasoa)** gehienbat).

Lurraldez lurralde, Tolosaldean nabarmen gutxiago erabiltzen dute bai gaztelania bakarrik (%19,7) eta baita gaztelania aurretik jartzen duen eredu elebiduna (%19,7) komentarioak egiteko. Euskararen eta euskara lehenesten duen eredu elebidunaren ehunekoak, ordea, nabarmen altuagoak dira bertan (%30,1 kasu bietan).

Emaitzak oso antzekoak dira Debagoiengan eta Urola Kostan, non nabarmen gutxiago dira gaztelaniara soilik jotzen dutenak (%16,7 eta %14,1 kasu bakoitzean) eta gehiago euskara lehenesten duen eredu elebiduna (%34,6 eta %33,3) eta baita euskara bakarrik ere (%17,1 eta %27,8) maneiatzen dutenak. Debabarrenean, bere aldetik, iruzkinak gaztelaniaz bakarrik egiten dituzten gazteak nabarmen gutxiago dira (%30,3) bestelako eskualdeekin alderatuta.

Gaztelania hobesten duen joera bereziki Donostialdean eta Oarso-Behe Bidasoan da aipagarria. Izan ere, bi eskualde hauek dira eredu elebakarra gehien erabiltzen dutenak (%52,1 eta %62,9 kasu bakoitzean). Halaber, nabarmen gutxiago jotzen dute bai euskara lehenesten duen eredu elebidunera (%12,2 eta %9,8) eta baita euskara soilik erabiltzera (%4,2 eta %2,7). Goierri ere diferentzia esanguratsua topatu da gaztelania aurretik jartzen duen eredu elebidunari dagokionez, bertan beste eremu batzuetan baino nabarmen gehiago baliatzen baita (%39,1).

64. taula. Edukiak jarraitu edota gomendioak egiteko erabilitako hizkuntza(k) eskualdeka

	Guztira	Tolosaldea	Goierri	Donostialdea	Debagoiena	Oarso- Behe Bidasoa	Urola Kosta	Debabarrena
Gaztelania bakarrik	38,8	19,7	33,2	52,1	16,7	62,9	14,1	30,3
Euskara eta gaztelania, baina gaztelania gehiago	28,5	19,7	39,1	30,4	29,9	23,3	23,1	35,3
Euskara eta gaztelania, baina euskara gehiago	20,1	30,1	17,3	12,2	34,6	9,8	33,3	24,9
Euskara bakarrik	11,3	30,1	8,9	4,2	17,1	2,7	27,8	7,7
Ed/Ee	1,3	0,4	1,5	1,2	1,7	1,3	1,7	1,8


Iturria: Egileak berak egina.

Bestelako aldagai batzuk kontuan izanda, ikastetxe mota eta euskararen erabilera dira alde esanguratsua erakusten dituztenak. Lehenengoaren harira, **pribatuak diren ikastetxeetan gazteek nabarmen gehiago jotzen dute soilik gaztelaniara** (%43,8) eta sare publikoan, ordea, txikiagoa da nerabe horien kopurua (%32). **Ikastetxe publikoetako ikasleen artean, era berean, gehiago dira eredu elebidunaren alde egiten dutenak** (%32), baina gaztelania lehenetsiz.

Euskara hobetzeko beharrak markatzen dituen diferentziak aztergai izango dira orain. Erreferentzia behar duten ikasleek nabarmen gehiago komentatzen dute gaztelaniaz soilik (%51,7) eta gutxiago bai euskara hobesten duen eredu elebiduneari (%8,7) eta baita euskaraz bakarrik ere (%4,7).

Eguneroko jardunean euskaraz mintzo diren eta ez diren ikasleek ere portaera ezberdina dutela antzeman da. **Familian eta lagunartean daudenean euskaraz hitz egiten dutenek ikus-entzunezkoen buruzko komentarioak gehienbat eredu elebiduneari egiten dituzte**, gaztelania lehenesten duen ereduari (%32,9) eta euskara aurretik jartzen duenean (%30). Gainera, inguru erdaldunagoko gazteekin alderatuta, hauek **nabarmen gehiago aritzen dira bakarrik euskaraz** (%16,9) eta nabarmen gutxiago gaztelaniaz (%18,7). **Modu ohiko batean euskaraz aritzen ez diren kideek kontrako emaitzak erakusten dituzte**: iradokizun eta iritzirik batez ere gaztelaniaz ematen dituzte (%75,3), eredu elebidunera (%20,5 gaztelania lehenetsiz eta %2,1 euskaraz aurretik) eta euskarara (%1,2) nabarmen gutxiago joz.


107. grafikoa. Edukiak jarraitu edota gomendioak egiteko hizkuntza(k) euskararen erabilera informala araber



Iturria: Egileak berak egina.

Ikasketen eremuan ere joera berdina errepikatzen dela nabarmendu beharra dago. Hau da, **euskara erabiltzen dutenen artean gehiago dira komentarioak gaztelaniaz eta euskaraz egiten dituztenak** (elebidunak), azken hizkuntza hau lehenetsiz (%22,1). Nabarmen gutxiago dira, ordea, gaztelaniaz soilik ari direnak (%33,9). **Hezkuntzaren arloan euskaraz mintzatzen ez diren gazteek, kontrara, nagusiki gaztelaniaz partekatzen dituzte iritziak** (%77,2) eta gutxiago jotzen dute eredu elebidunera (%13,8 gaztelania hobetsiz eta %3,7 euskara) eta soilik euskarara (%3,3).


108. grafikoa. Edukiak jarraitu edota gomendioak egiteko hizkuntza(k) ikasketetan egiten den euskararen erabilera araber



Iturria: Egileak berak egina.

Azkenik, teknologiaren esparruan egiten den euskararen erabilera jorratuko dugu. Beste behin ere, **Interneten dabilzanean euskaraz ari diren gazteek eredu elebidunaren alde egiten dute neurri handiago batean** (%30,1k euskara hobetsiz eta %33,3k gaztelania), **eta baita euskara soilik erabiltzearen alde** (%17,2k). Interneten gaztelaniaz nabigatzen duten hamar ikasletik zazpik gaztelaniaz igortzen dituzte iruzkinak (%71,7), eta nabarmen gutxiago erabiltzen dute bai eredu elebiduna (%20,9 gaztelania aurretik eta %4,1 euskara) eta baita euskara ere (%1,9).

109. grafikoa. Edukiak jarraitu edota gomendioak egiteko hizkuntza(k) euskararen erabilera teknologikoaren arabera




Iturria: Egileak berak egina.

(67) Idatz ezazu lagunekin komentatutako pelikula baten izenburua

Genero aniztasun nabaria sumatzen da nerabeek lagunartean gehien komentatzen dituzten pelikulei erreparatzen bazaio. Izan ere, dramak, komediak, pelikula erromantikoak, fantasiakoak eta akziodun filmak aipatzen dituzte gustukoenen artean. **Oihartzunik handiena lortu dutenak** *Un monstruo viene a verme* (%6,2), *3 metros sobre el cielo* (%4,6) eta *Ocho apellidos vascos* (%3,4) dira, **estatu mailako produkzioak** hirurak. Atzetik kokatzen direnak, berriz, nazioarteko pelikulak dira gehienbat: *Star Wars* (%2,7), *Los Juegos del Hambre* (%2,3), *Harry Potter* (%2,3), *Villaviciosa de al lado* (%2,3), *Fast and Furious* (%2,1), *Assassins Creed* (%2,1) eta *Escuadrón Suicida* (%1,8).

Datuak erakusten dutenez, **euskarazko filmak ez dira ohiko hizketagai nerabeen artean**. Adibide jakin batzuk identifikatu izan dira, baina ez dituzte ehuneko adierazgarriak eskuratzen (gehienez komentatutako pelikulen zerrendan hogeita hamargarren postutik aurrera kokatzen dira). Horien artean daude *Go!azen*, *Zipi eta Zape*, *Igelak*, *Izarren Argia*, *Amama*, *Loreak*, *Urte berri on amona!*, *Agur esatea*, *Ezkutuan*, *Aupa Etxebeste!*, *Lasa eta Zabala*, *Zu zeu*, *Alaba zintzoa* edota *Doraemon*.

110. grafikoa. Gazteek lagunekin komentatutako pelikulak



Iturria: Egileak berak egina.

Eskualdeetan lortutako emaitzei erreparatuz, nerabeek gutxiago komentatu dute *3 metros sobre el cielo* Tolosaldean (%1,5) eta Debagoiengan (%0,5). Gainera, azken toki honetan nabarmen gehiago izan da hizketagaita *Villaviciosa de al lado* (%4,4). Goierrin beste tokietan baino gehiago mintzatu izan dira *Un monstruo viene a verme* (%12) eta *Los Juegos del Hambre* (%5,2) filmei buruz eta Donostialdean, ordea, nabarmen gutxiago komentatu dituzte bi titulu hauek (Juan Antonio Bayonaren pelikula, %2,6, eta Jennifer Lawrence protagonista duen saga, %1,1). Era berean, *Star Wars* (%5,1) eta *Assassin's Creed* (%4) filmei buruz nabarmen gehiago mintzatu izan dira eskualde honetan. Oarso-Behe Bidasoan *Fast and Furious* gehiago komentatu izan dute lagunartean (%3,8) eta, azkenik, Urola Kostan ez dute *Star Wars* edota *Villaviciosa de al lado* pelikulei buruz hitz egin.

65. taula. Gazteek lagunekin komentatutako pelikulak eskualdeka


	Guztira	Tolosaldea	Goierrri	Donostialdea	Debagoiena	Oarso- Behe Bidasoa	Urola Kosta	Debabarrena
Un monstruo viene a verme	6,2	9	12	2,6	7,8	5,5	5,7	9,4
3 metros sobre el cielo	4,6	1,5	3,1	5,7	0,5	5,8	7,2	5,4
8 apellidos vascos	3,4	5	5,7	2,3	3,4	3,2	3,6	3
Star wars	2,7	2	1,6	5,1	2,5	2	0	1
Los juegos del hambre	2,3	2,5	5,2	1,1	1,5	3,5	1,5	3
Harry Potter	2,3	1	1	2,5	2,9	2,3	2,6	3
Villaviciosa de al lado	2,3	1	3,1	2,5	4,4	3,2	0	0,5
Fast and furious	2,1	3	1,6	1,4	2,9	3,8	1	1,5
Assassin's Creed	2,1	0,5	0,5	4	2	2	0,5	1
Escuadrón suicida	1,8	2	1	2,3	2	1,7	1	1
Ed/Ee	11,6	11	12	11,7	7,4	15,4	12,9	8,4

Iturria: Egileak berak egina.

Horrekin batera, gazteen adina eta generoa kontuan izanda ezberdintasun nabarmenak aurkitu direla adierazi beharra dago. Ikasturteari dagokionez, diferentzia adierazgarriak lehen eta bigarren zikloaren hasieran kokatzen dira, hau da, DBHko 1.go eta 3. mailan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren hasieran daudenek nabarmen gutxiago komentatu izan dituzte *3 metros sobre el cielo* (%0,6) eta *Fast and Furious* (%0,2), baina gehiago *8 apellidos vascos* (%5,8) eta *Star Wars* (%4,3).

Hirugarren mailakoek, beren aldetik, nabarmen gehiago izan dituzte hizketagai *3 metros sobre el cielo*, Federico Mocchiaren liburuan oinarritutako pelikula erromantikoa (%7,1); *Fast and furious*, auto lasterketen inguruko akziozko saga (%3,4), eta *Los Juegos del Hambre* (%3,8) literatura-trilogiari buruzko filmak. Halaber, DBHko 2. mailako nerabeen artean komentario gehien izan dituen *Escuadrón Suicida* litzateke (%3,2).


111. grafikoa. Lagunekin komentatutako pelikulak adinaren arabera



Iturria: Egileak berak egina.

Gazteen generoak ere hein handi batean baldintzatzen du ikusi eta komentatzen den pelikularen izaera. Modu honetan, *Un monstruo viene a verme* (%10) eta *3 metros sobre el cielo* (%8,1) batez ere neskek gustuko dituzten filmak izango lirateke. Mutilen artean, berriz, ohiko hizketagaiak izan dira *Star Wars* (%5,1), *Fast and Furious* (%4,3) eta *Assassin's Creed* (%4,2). Horrekin batera, badaude neskek eta mutilek antzeko neurrian komentatu izan dituzten filmak, nahiz eta bi generoen artean aldeak sumatzen diren: *8 apellidos vascos*, *Los Juegos del hambre*, *Harry Potter*, *Villaviciosa de al lado* eta *Escuadrón suicida*.

112. grafikoa. Lagunekin komentatutako pelikulak generoaren arabera




Iturria: Egileak berak egina.

(68) Idatz ezazu lagunekin komentatzen duzun telesail baten izenburua

La que se avecina eta Go!azen dira nerabeek lagun kuadrillarekin batera daudenean **ohiko mintzagai izaten dituzten telesailak**; zehazki, gazteen %23,3 Telecinco telebista katean emititzen den komediari buruz aritzen dira eta %18,6 Euskal Telebistako saioari buruz. Atzerago topatzen ditugu *Hawaii 5.0.* (%8,5), *Castle* (%4), *The Walking Dead* (%2,7), *The big bang theory* (%2,6) eta *Juego de Tronos* (%2). *Pequeñas mentirosas* (%1,9), *Teen Wolf* (%1,8) eta *Los Simpson* (%1,3) telesailek osatzen dute gehien komentatzen diren tituluaren zerrenda.

Zinemagintzaren arloan gertatzen den bezalaxe, **euskarazko telesailek** (aurretik aipatutako *Go!azen* kenduta) **ez dute arrakasta gehiegirik nerabeen arteko hizketagai gisa**. Gazteek *Doraemon*, *Dragoi Bola*, *Goenkale*, *Aho zabalik*, *Baserrri eta txantarra* edo *Eskamak kentzen* aipatu izan dituzte, baina gainerakoekin konparatuta jarraipen askoz baxuagoa dute (zerrenda orokorrean hogeita zortzigarren postutik behera ageri dira).

113. grafikoa. Lagunekin komentatutako telesailek



Iturria: Egileak berak egina.

Eskualdeka aurkitu den diferentzia nabaria ETB1 kateko **Go!azen** telesailari dagokio. **Urola Kostan** (%31,5), **Debabarrenean** (%28,5) eta **Tolosaldean** (%25,1) nabarmen gehiago komentatzen da; Donostialdean (%12,9) eta Oarso-Behe Bidasoan (%9), aldiz, gutxiago. Tartean egongo liratekeenak Debagoiena (%20,6) eta Goierri (%19,3) dira. Aipagarria da baita ere Goierri *The Walking Dead* ez dela hizketagai, Debagoiengan *Teen Wolf* eta *Los Simpson* telesailekin gertatzen den bezalaxe. Gainerako telesailak, aldiz, batezbesteko datuen inguruan mantentzen dira.

66. taula. Lagunekin komentatutako telesailak eskualdeka


	Guztira	Tolosaldea	Goierri	Donostialdea	Debagoiena	Oarso- Behe Bidasoa	Urola Kosta	Debabarrena
La que se avecina	23,3	30,4	26,7	19,5	22,9	23,3	22,2	26,1
Go!azen	18,6	25,1	19,3	12,9	20,6	9	31,5	28,5
Hawaii 5.0	8,5	5,8	8	9,3	11,4	8,2	8	7,3
Castle	4	3,5	6,7	3,5	4	4,9	3,7	2,4
The walking dead	2,7	2,3	0	3,1	4,6	2,4	3,7	1,8
The big bang theory	2,6	4,1	4,7	2,7	1,7	2,4	1,2	1,8
Juego de tronos	2	1,2	1,3	2,1	0,6	2,4	3,1	2,4
Pequeñas mentirosas	1,9	2,3	2	2,3	2,9	1,2	1,2	0,6
Teen Wolf	1,8	0,6	1,3	2,5	0	2	3,1	1,8
Los Simpson	1,3	0,6	0,7	1,4	0	2	1,9	2,4
Ed/Ee	15,7	12,3	12,7	17,8	17,7	20,4	11,1	10,9

Iturria: Egileak berak egina.

Gazteen adina, generoa eta estatusa aztergai izango ditugu jarraian, lagunartean egiten den telesailen iritzi trukean eragina duten aldagaiak dira eta. *Pequeñas mentirosas* eta *Teen Wolf* telesailek nagusien (DBH4) artean dute arrakastarik handiena; izan ere, gazteen %4,1ek dituzte hizketagai bata zein bestea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo mailan, ordea, ez dute fikziozko eduki hauei buruzko komentariarik egiten. Laugarren mailakoek, gainera, *Juego de Tronos* ere nabarmen gehiago (%3,6) komentatzen dute gainerako ikasturtekoekin konparatuta. Telecinco-ko *La que se avecina*-ri buruz nabarmen gehiago mintzatzen direnak DBHko bigarren mailakoak lirateke (%32,3).

Neskek eta mutilek telesailak jarraitu eta komentatzeko orduan gustu ezberdinak dituztela ere egiaztatzen da. Lehenengo artean gehiago hitz egiten da Euskal Telebistako *Go!azen* (%27,3), *Castle* (%5,7), *Pequeñas mentirosas* (%3,2) eta *Teen Wolf* (%3,1) bezalako edukiei buruz. Bigarrenek, beren aldetik, nahiago dute *La que se avecina* (%37), *Hawaii 5.0*. (%12), *The Walking Dead* (%4,7) eta *Los Simpson*-i (%2,5) buruz aritzea. Zientzialari talde bati buruzko *The Big Bang Theory* komedia eta *Juego de Tronos* fantasiako telesaia, aldiz, antzeko neurrian izaten dira hizketagai mutilen zein nesken artean.

114. grafikoa. Lagunekin komentatutako telesailak generoaren arabera



Iturria: Egileak berak egina

Gazteen estatus sozioekonomikoari erreparatuta esan daiteke *Castle* (%7,9) eta *Teen Wolf* (%4,2) maila erdi-altukoek komentatzen dituztela gehiago eta ertain-baxukoek, berriz, *La que se avecina* (%28,5).

Ikastetxe mota eta euskararen erabilera bezalako aldagaiek **Go!azen** telesailak daukan ikuslearen profilari buruzko datu gehiago eskaintzen dituzte, haiei lotuta aurkitu baitira ezberdintasun esanguratsu nagusiak. Lehendabizi, **sare publikoan dauden ikasleek nabarmen gehiago komentatzen dute** ETBko telesaila (%22,2). Bestetik, euskara hobetzeko errefortzua behar dutenek neurri txikiagoan dute hizketagai eduki haxe (%8,5) eta gehiago jotzen dute gaztelaniazko *La que se avecina*-ri buruzko iruzkinak kuadrillan partekatzerara (%36,4).

Euskara eguneroko bizitzan eta alor teknologikoan hitz egiten dutenek ere gehiago komentatzen dute Go!azen; zehazki, euskararen alde egiten dutenen artean %25,4 eta %26,5 dira kasu bakoitzean, eta gaztelaniara jotzen dutenen artean %4,9 eta %4,3. Era berean, ikasketen eremuan euskaraz mintzo ez direnak gutxiago (%8,4) aritzen dira lagunartean telesail honen inguruan.


(69) Idatz ezazu gustuko duzun eta lagunekin komentatzen duzun saio baten izenburua

Telecinco da nagusi iruzkin gehien jasotzen dituzten telebistako saioen zerrendan, *Gran Hermano* (%9,9) eta *Mujeres y hombres y viceversa* (%7,8) programak gustukoenen artean kokatzen direlarik. Hirugarren postua **euskarazko Gu ta gutarrak** (%7,1) saioari dagokio eta tarteko maila honetan **Euskal Telebistan emititzen diren saioen presentzia nabaria** antzeman dela azpimarratu beharra dago. Zentzu honetan azpimarratuko ditugunak *El conquistador del fin del mundo* (%2,6), *Kirola* (%1,1) edota *Herri txiki, infernu handi* (%0,9) dira.

Oihartzun sozial handia duten bestelako edukien artean ere aurkitzen dira *Deportes Cuatro* (%1,7), *MasterChef* (%1,7), *Tu cara me suena* (%1,6), *First Dates* (%1,1) edota *Cámbiame* (%1). Aipagarria da, beste alde batetik, azken bi saio hauen kasuan, gazteen eduki gustukoenen zerrendan goiko postuetan dauden arren ez direla komentatuenen artean ageri.

Nerabeek **Euskal Telebistan eskaintzen diren bestelako programa batzuk** ere gogora ekarri dituzte, batez ere **kulturarekin, umorearekin eta kirolarekin lotutakoak**: *Burubero* (%0,6), *Kamera ezkutua* (%0,2), *Vaya Semanita* (%0,2), *Hitzetik hortzera* (%0,1), *La noche de...* (%0,1), *Mihiluze* (%0,1), *ETB Kantxa* (%0,1), *Gol festa* (%0,1) eta *Gailurra* (%0,1).

115. grafikoa. Lagunekin komentatutako saioak



Iturria: Egileak berak egina.

Eskualdeen araberako emaitzek erakusten dute **Tolosaldean, Urola Kostan eta Debabarrenean gainerako eskualdeetan baino nabarmen gehiago aritzen direla Euskal Telebistako saioei buruz. Oarso-Behe Bidasoan, aldiz, beste inon baino gutxiago komentatzen dira eduki hauek.**

Tolosaldeko gazteek, esaterako, nabarmen gehiago hitz egiten dute *El Conquistador del fin del mundo* (%4,9) eta *Herri txiki, infernu handi* (%3,4) programei buruz eta gutxiago *Gran Hermano*-ren inguruan (%1). Urola Kostan ere nabarmen gutxiago mintzatzen dira Telecincoko *reality*-aren gainean (%5,6) eta gehiago *Gu ta gutarrak* (%13,6) eta *El Conquistador del fin del mundo*-ri buruz (%5,1). Julen Telleriak ETB1 katean gidatutako programa ere gehiago (%14,3) komentatzen da Debabarrenean, *First Dates*-ekin batera (%2,5).

Kontrako aldean, esan bezala, Oarso-Behe Bidasoa legoke. Kasu honetan, nabarmen gutxiago izaten dituzte hizketagai *Gu ta gutarrak* (%2,6) eta *El Conquistador del fin del mundo* (%0,6), baina *Gran Hermano*-ri buruz gehiago (%14,7) aritzen dira. Azkenik, Debagoieneko gazteek beste toki batzuetan baino nabarmen gehiago komentatzen dute *Masterchef* sukaldaritza saioa (%5,5).

Amaitzeko, nabarmendu beharra dago Tolosaldeko gazteak ez direla *Tu cara me suena* saioaren inguruan aritzen, Goierrikoek *First Dates* eta *Kirola* programei buruz hitz egiten ez duten moduan. Debagoienean, halaber, *Cámbiame* ez da ohiko hizketagaita izaten eta Oarso-Bidasoan *Herri txiki, infernu handi* ere ez.

67. taula. Lagunekin komentatutako saioak eskualdeka


	Guztira	Tolosaldea	Goierri	Donostialdea	Debagoiena	Oarso- Behe Bidasoa	Urola Kosta	Debabarrena
Gran hermano	9,9	1	9	10,8	9,5	14,7	5,6	13,3
Mujeres y hombres y viceversa	7,8	6,3	7,3	7,8	9,1	8,7	7	7,9
Gu ta gutarrak	7,1	6,3	7,3	5,1	7,7	2,6	13,6	14,3
El conquistador del fin del mundo	2,6	4,9	2,2	2,2	3,6	0,6	5,1	1,5
Deportes Cuatro	1,7	0,5	1,1	1,7	2,3	1,4	2,3	2,5
MasterChef	1,7	1		2,2	5,5	1,2	0,5	0
Tu cara me suena	1,6	0	2,2	1,9	0,9	1,2	1,4	3
First dates	1,1	1	0	0,8	1,4	1,2	0,9	2,5
Kirola	1,1	2	0	1,3	0,9	0,9	0	2
Cambiame	1	0,5	2,2	0,8	0	1,2	1,4	1
Herri txiki, infernu handi	0,9	3,4	1,1	0,3	0,9	0	1,9	0,5
Ed/Ee	53,6	65,9	56,2	52,5	46,4	58,7	53,3	41,9

Iturria: Egileak berak egina.

Adina, generoa eta euskararen erabilera bezalako aldagaiak kontuan izango dira analisisian, haiekin lotuta ezberdintasun esanguratsuak identifikatu direlako. Nerabeen ikasturtea aintzat hartuta esan daiteke gazteenek (DBH 1) gutxiago hitz egiten dutela lagunekin *Gran Hermano* (%4,8), *Mujeres y hombres y viceversa* (%3,6) eta *El Conquistador del fin del mundo*-ri (%0,6) buruz. Hain zuzen ere, saio horietan dira helduenek (DBH 4) gehien komentatzen dituztenak (*Gran Hermano* %13,3, *Mujeres y hombres y viceversa* %11,9 eta *El conquistador del fin del mundo* %4,8), *Tu cara me suena*-rekin batera (%3). *Gu ta gutarrak* programaren inguruan, aldiz, nabarmen gutxiago (%4,2) mintzatzen dira. Datu aipagarri bezala, DBHko 3. mailan ez dute *Herri txiki, infernu handi*-ri buruzko iruzkin edo iritzirik elkartrukutzen.

Generoak gazteen gustuko saioetan diferentziak markatzen ditu eta, ondorioz, baita eduki horiek komentatzerako orduan ere. Neskek nabarmen gehiago hitz egiten dute kuadrillarekin *Gran Hermano* (%17,3), *Mujeres y hombres y viceversa* (%13,8), *Gu ta gutarrak* (%12), *Masterchef* (%3,2) eta *Cámbiame* (%1,7) saioen gainean. Mutilek, berriz, neurri handiagoan izaten dute hizketagaita *Deportes Cuatro* lagunartean (%3), eta baita *Kirola* ere (%1,5).

116. grafikoa. Lagunekin komentatutako saioak generoaren arabera



Iturria: Egileak berak egina.

Euskararen erabilera ezartzen dituen ezberdintasun nabariak Euskal Telebistako eta Telecinco kateko *Gran Hermano* programekin dute zerikusia. Hasteko, euskara hobetzeko laguntza behar duten gazteek ez dute *El Conquistador del fin del mundo* komentatzeko ohiturarik eta gutxi aritzen dira *Gu ta gutarrak* saioari buruz (%2,6).

Egunerokoa euskaraz mintzo diren nerabeen kasuan, orokorrean esan daiteke ETBko zenbait saio gehiago komentatzen dituztela inguru erdaldunagoekin alderatuz. *Gu ta gutarrak* (%10,1) eta *El Conquistador del fin del mundo* (%3,5) programei buruz ari gara, zehazki. Euskara modu ohikoan maneiatzen ez dutenek, baina, gehiago komentatzen dute *Gran Hermano* (%13).

Arlo teknologikoan euskara erabiltzen duten gazteek ere joera berdina jarraitzen dute, alegia, *Gu ta Gutarrak* saioari buruz gehiago mintzo dira lagunartean (%10,3) eta gutxiago (%7,8) *Gran Hermano* programaren gainean. Interneten euskaraz nabigatzen ez dutenen kasuan, beren aldetik, kontrakoak dira emaitza horiek: gehiago hitz egiten dute Telecinco-ko programari buruz (% 13,3) eta gutxiago ETBko saioen inguruan (*Gu ta gutarrak* %1,9 eta *Herri txiki, infernu handi* %0,1).



mac

Ikus-entzunezko Garaikideen Mutazioak
Mutaciones del Audiovisual Contemporáneo



ETORKIZUNA ERAIKIZ
EL **FUTURO** DE GIPUZKOA



ORAIN
GIPUZKOA